# TXOSTENA/MEMORIA

## 08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA
## DEPARTAMENTO 08: POLÍTICAS SOCIALES
### 11 Programa: Adinekoen laguntza
### Programa 11: Atención a personas mayores

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, eskumen berrantolaketari buruz hitz egiten du bigarren xedapen iragankorrean. Berrantolaketa hori gauzatzeko hartu diren neurrien artean, Gizarte Politikako Departamentuak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta mankomunitateek lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten 2014. urtean, eta bertan zehazten da udalek mendekotasuna duten pertsonei eskaintzen dieten etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko baldintzak zeintzuk diren.

Zerbitzu hori finantzatzeko, hitzarmenean zehaztutako gehieneko tarifen arabera, beharrezkoak diren aurrekontuko kredituak hauek dira.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

2016 ................................ 8.729.471
2017 ................................ 3.016.387

Entre las diversas medidas adoptadas para proceder al reajuste competencial al que se refiere la disposiciónn transitoria segunda de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, el Departamento de Políticas Sociales y los ayuntamientos y mancomunidades del Territorio Histórico de Gipuzkoa suscribieron en 2014 un convenio de colaboración en el que se definen las condiciones para la financiación del servicio de ayuda a domicilio prestado en los municipios a personas calificadas como dependientes.

Para la financiación de este servicio, conforme a las tarifas máximas establecidas en el convenio, los créditos presupuestarios necesarios son los siguientes:

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

2016 ................................. 8.729.471
2017 ................................. 3.016.387

**TXOSTENA/MEMORIA**

**08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA**
**DEPARTAMENTO 08: POLÍTICAS SOCIALES**
**21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana**
**Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social**

**LANDA MANKOMUNITATEENTZAKO LAGUNTZAK**

Gizarte Politikako Departamentuak landa munduak gizarte zerbitzuen arloan dituen behar zehatzei erantzuteko jarduera ildo batzuk garatzen ditu landagunean dauden beharren kudeaketa hobetzeko, hain zuzen ere, gizarte zerbitzuen mankomunitateak sortuz eta finkatuz.

**APOYO A LAS MANCOMUNIDADES RURALES**

El Departamento de Políticas Sociales atendiendo a las necesidades específicas del mundo rural en materia de servicios sociales desarrolla una línea de actuación para una mejor gestión de las necesidades existentes en el mundo rural, que consiste en la creación y consolidación de mancomunidades de servicios sociales.

**ULI MANKOMUNITATEA**

Belauntza, Gaztelu, Leaburu eta Orexa. osatzen duten gizarte zerbitzuen mankomunitatea sendotzeko diru laguntza

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ................................ | 17.942 |
| 2017 ................................ | 17.942 |

**MANCOMUNIDAD ULI**

Subvención a la consolidación de la mancomunidad de servicios sociales que forman los municipios de Belauntza, Gaztelu, Leaburu y Orexa.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ................................ | 17.942 |
| 2017 ................................ | 17.942 |

**BIDEBERRI MANKOMUNITATEA**

Antzuola, Elgeta eta Leintz-Gatzaga osatzen duten gizarte zerbitzuen mankomunitatea sendotzeko diru laguntza

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ................................ | 17.969 |
| 2017 ................................ | 17.969 |

**MANCOMUNIDAD BIDEBERRI**

Subvención a la consolidación de la mancomunidad de servicios sociales que forman los municipios de Antzuola, Elgeta y Leintz-Gatzaga

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ................................ | 17.969 |
| 2017 ................................ | 17.969 |

**AIZTONDO MANKOMUNITATEA**

Aduna, Alkiza, Larraul eta Zizurkil osatzen duten gizarte zerbitzuen mankomunitatea sendotzeko diru laguntza

**MANCOMUNIDAD AIZTONDO**

Subvención a la consolidación de la mancomunidad de servicios sociales que forman los municipios de Aduna, Alkiza, Larraul y Zizurkil

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ................................ | 19.466 |
| 2017 ................................ | 19.466 |

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ................................. | 19.466 |
| 2017 ................................. | 19.466 |

**SAIAZ MANKOMUNITATEA**

Albistur, Beizama, Bidania-Goiatz eta Errezil osatzen duten gizarte zerbitzuen mankomunitatea sendotzeko diru laguntza.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ................................ | 18.933 |
| 2017 ................................ | 18.933 |

**MANCOMUNIDAD SAIAZ**

Subvención para la consolidación de la mancomunidad de servicios sociales que forman Albistur, Beizama, Bidania-Goiatz y Errezil

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ................................. | 18.933 |
| 2017 ................................. | 18.933 |

# TXOSTENA/MEMORIA

## 08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA
## DEPARTAMENTO 08: POLÍTICAS SOCIALES
## 21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana
## Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social

### TXARA-1 ETA TXARA-2 ZENTROAK EROSTEA

1994ko uztailaren 19ko 8/1994 eta 9/1994 foru arauen bidez onartutako inbertsioen artean proiektu berritzaile bat zegoen adinekoentzat eta ezintasuna duten pertsonentzat: Txara-1 eta Txara-2 zentroak, Donostiako Intxaurrondo auzoan daudenak.

Txara-1 Egoitza Espezializatuen Zentroak egitura hau dauka: egoitzako lau modulu, eta elkarbizitzako unitateak. 1997an inauguratu zen.

Txara-2 Laguntza eta Gizarte Baliabideen Zentroak zerbitzu hauek ditu: egoitzako zaintza espezializatu iraunkorra, aldi baterako egoitzako zaintza espezializatua, eguneko zentroa, eta balio anitzeko bizilekuak. 1999an inauguratu zen.

Aurrekontuetan sartutako konpro-misozko kredituak, zentro horietan dauden bizilekuak erosteko Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutako lankidetza hitzarmenean aurreikusitako eta ordaindu gabeko urtekoen gainekoak dira.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | | |
|---|---|---|
| 2016 | ........................ | 349.165 |
| 2017 - 2019 | .................. | 561.096 |

### ADQUISICIÓN CENTROS TXARA-1 Y TXARA-2

Entre las inversiones aprobadas por las Normas Forales 8/1994 y 9/1994, de 19 de julio, se contemplaba un proyecto innovador para los colectivos de personas mayores y personas con discapacidad: los Centros Txara-1 y Txara-2, del barrio de Intxaurrondo de Donostia-San Sebastián.

El Centro de Alojamiento Residencial Especializado Txara-1, estructurado en cuatro módulos residenciales y unidades de convivencia, se inauguró en 1997.

El Centro de Recursos Asistenciales y Sociales Txara-2, que cuenta con los servicios de atención residencial especializada permanente, atención residencial especializada temporal, centro de día y alojamiento polivalentes, se inauguró en 1999.

Los créditos de compromiso presupuestados corresponden a las anualidades previstas pendientes en el convenio de cooperación formalizado con el Gobierno Vasco por la adquisición de las viviendas que conforman los centros mencionados.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | | |
|---|---|---|
| 2016 | ........................ | 349.165 |
| 2017 - 2019 | ................. | 561.096 |

**TXOSTENA/MEMORIA**

**08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA**
**DEPARTAMENTO 08: POLÍTICA SOCIAL**
**21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana**
**Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social**

## Txara 1 eta Txara 2 eraikinetako dorreetako begiratokiak

2015. urtean, proiektuaren idazketa enkargatu da Txara 1 eta Txara 2 eraikinetako dorreetako errezel-hormak konpontzeko. Proiektu hori urrian jasoko da.

Egungo errezel-hormek estankotasun arazoak eta portaera termikokoak dituzte. Txara 1 eraikinaren kasuan, barrualdetik, egongune komunei dagozkie. Txara 2ren kasuan, berriz, bulegoei. Bi eraikinetan, ur eta aire infiltrazioak izaten dira, arotz-lanen kalitate eskasagatik.

Obrak honelakoak izango dira: errezel-horma osorik aldatzea, eta estankotasuna eta portaera termiko egokia bermatuko dituzten materialak erabiltzea.

Behin betiko proiektuaren esperoan, obrek lau hilabete iraungo dutela jotzen da. Kontuan hartuta zer denbora behar den obrak lizitatzeko prozeduretarako, 2016ko laugarren lauhilekoan has litezke.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 117.222 |
| 2017 ……………….. | 456.945 |

## Miradores torres Txara-2 y Txara-1

En el año 2015 se ha encargado la redacción del proyecto de reparación de los muros cortinas de los torreones de los edificios Txara 1 y Txara 2. Dicho proyecto será recibido a lo largo del mes de octubre.

Los muros cortina actuales adolecen de problemas de estanqueidad y comportamiento térmico. En el caso de Txara 1 se corresponden en el interior con las zonas de estar común. En el caso de Txara 2, con despachos. En ambos edificios se producen infiltraciones de agua y aire, debido a la baja calidad de las carpinterías.

Las obras consistirán en la sustitución integral del muro cortina con materiales que garanticen la estanqueidad y el comportamiento técnico adecuado.

A la espera del proyecto definitivo, se estima que la duración de las obras será de cuatro meses. Teniendo en cuenta el tiempo necesario para los procedimientos de licitación la obra podría comenzar en el último cuatrimestre de 2016.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 117.222 |
| 2017 ……………….. | 456.945 |

# TXOSTENA/MEMORIA

## 08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA
## DEPARTAMENTO 08: POLÍTICA SOCIAL
## 21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana
## Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social

### ALDAKOENEA EGOITZAKO FATXADAK, ESTALKIAK ETA TERRAZAK KONPONTZEA

Aurreikusita dagoenez, 2015eko urrian amaituko dira Aldakoenea egoitza egokitzeko proiektuari dagozkion barne-eraberritze obrak, lehenengo, bigarren eta hirugarren solairuetakoak. Proiektu horretan, dagoeneko, aipatzen zen fatxada konpondu beharra zegoela, haren kontserbazio egoerak hainbat patologia ageri dituelako, eraikinaren prestazioak murrizten dituztenak eta haren kanpoko itxurari kalte egiten diotenak.

Horregatik, proiektuaren idazketa enkargatu zen Aldakoenea egoitzako fatxadak, estalkiak eta terrazak konpontzeko, eta proiektu hori irailean jaso da.

Obrak honelakoak izango dira: ekialde, mendebalde eta hegoaldeko fatxadak berreskuratzea; iparraldeko fatxadaren energia-birgaitzea; eta terraza lauak eta estalki inklinatuak mantentzea. Eguneko zentroaren kasuan, panel fenoliko ijeztuen bidez estaltzea.

Obren iraupena hamalau hilabetekoa izango da. Kontuan hartuta zer denbora behar den obrak lizitatzeko prozeduretarako, 2016ko laugarren lauhilekoan has litezke.

<u>AURREKONTUKO ZENBATEKOAK</u>

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 150.000 |
| 2017 ……………….. | 950.000 |

### REPARACIÓN FACHADAS, CUBIERTAS Y TERRAZAS RESIDENCIA ALDAKOENEA

En el mes de octubre de 2015 está prevista la finalización de las obras correspondientes al proyecto de adecuación de la Residencia Aldakoenea, que han consistido en la reforma interior de las plantas primera, segunda y tercera. Ya en ese proyecto se hacía referencia a la necesaria reparación de la fachada, cuyo estado de conservación presenta distintas patologías que merman las prestaciones del edificio y que menoscaban el aspecto exterior del mismo.

Por ello, se encargó la redacción del proyecto de ejecución de la reparación de fachadas, cubiertas y terrazas de la Residencia Aldakoenea, el cual ha sido recibido el pasado mes de septiembre.

Las obras consistirán en la recuperación de las fachadas este, oeste y sur, rehabilitación energética de la fachada norte, mantenimiento de terrazas planas y de las cubiertas inclinadas. En el caso del centro de día, revestimiento mediante paneles fenólicos laminados.

La duración de las obras será de catorce meses. Teniendo en cuenta el tiempo necesario para los procedimientos de licitación la obra podría comenzar en el último cuatrimestre de 2016.

<u>DOTACIÓN PRESUPUESTARIA</u>

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 150.000 |
| 2017 ……………….. | 950.000 |

## TXOSTENA/MEMORIA

**08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA**
**DEPARTAMENTO 08: POLÍTICA SOCIAL**
**21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana**
**Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social**

### TXARA 2 ERAIKINEKO AIRE PRIMARIOKO SISTEMAREN INSTALAZIOA ERABERRITZEA

Txara 2 eraikineko bulegoetako aire primarioaren instalazioa eskasa da, alderdi hauek kontuan hartuta: inguruneko hezetasun falta, solairukako aireztapen kanalen orekatze falta, eta difusio desegokia.

Obrak honelakoak izango dira: aire primarioaren aireztapen instalazioa berritzea, bere hartan utzita airea girotzeko instalazioa, osorik hartuta. Horrela lortuko da % 50eko hezetasuna esparru guztietan, eta horrek aparteko garrantzia du lipoatrofiaren prebentziorako.

Obren iraupena bost hilabetekoa izango da. Kontuan hartuta zer denbora behar den obrak lizitatzeko prozeduretarako, 2016ko laugarren lauhilekoan has litezke.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 100.000 |
| 2017 ……………….. | 325.000 |

### REFORMA INSTALACIÓN SISTEMA AIRE PRIMARIO TXARA 2

La instalación de aire primario en el edificio Txara 2 (oficinas), es deficiente en cuanto a los siguientes puntos: falta de humedad en el ambiente, falta de equilibrado de los caudales de ventilación por plantas y difusión inadecuada.

Las obras consistirán en la renovación de la instalación de ventilación de aire primario, manteniendo en su conjunto la instalación de climatización. Con ello se conseguirá garantizar una humedad del 50% en todos los recintos, extremo éste de especial relevancia para la prevención de la lipoatrofia.

La duración de las obras será de cinco meses. Teniendo en cuenta el tiempo necesario para los procedimientos de licitación la obra podría comenzar en el último cuatrimestre de 2016.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 100.000 |
| 2017 ……………….. | 325.000 |

# TXOSTENA/MEMORIA

**08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA**
**DEPARTAMENTO 08: POLÍTICA SOCIAL**
**21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana**
**Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social**

## TXARA 1 ERAIKINEKO INGURATZAILEAREN PATOLOGIAK KONPONTZEA (FATXADAK ETA AROTZ-LANAK)

2015. urtean, proiektuaren idazketa enkargatu da Txara 1 eraikineko fatxadak eta arotz-lanak konpontzeko. Proiektu hori urrian aurkeztu da.

Gaur egun, narriadura sintoma edo lesio ugari dituzte fatxadak, balkoiek, teilatu-hegalek eta arotz-lanek, eta, eraikinaren barruan, hezeguneak eta aire filtrazioak eragiten dituzte. Horrek denak oso eragin kaltegarria du egoiliarren konfortean.

Obrak honelakoak izango dira: fatxadak garbitzea, pieza hautsiak edo pitzatuak konpontzea, eta iragazgaizteko produktu bat aplikatzea. Balkoietan, hondatutako elementuak konponduko dira, eta, kasu batzuetan, zeramikazko zoladura iragazgaiztu eta aldatu egingo da. Teilatu-hegaletan, hondatutako elementuak konponduko dira, eta iragazgaizteko tratamendu bat egingo da. Ia eraikin osoko arotz-lanak aldatuko dira, eta, haien ordez, prestazio handiagoetakoak jarriko dira.

Obren iraupena bederatzi hilabetekoa izango dela jo da. Kontuan hartuta zer denbora behar den obrak lizitatzeko prozeduretarako, 2016ko laugarren lauhilekoan has litezke.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 130.000 |
| 2017 ……………….. | 1.718.480 |

## SUBSANACIÓN PATOLOGÍAS ENVOLVENTE (FACHADAS Y CARPINTERÍA) TXARA-1

En el año 2015 se ha encargado la redacción del proyecto de reparación de las fachadas y carpinterías del edificio Txara 1. Dicho proyecto ha sido entregado en el mes de octubre.

Actualmente la fachada, balcones, aleros y carpintería presentan numerosos síntomas de deterioro o lesiones que provocan humedades y filtraciones de aire en el interior del edificio, repercutiendo muy negativamente en el confort de las personas residentes.

Las obras consistirán en la limpieza de las fachadas, reparación de las piezas rotas o fisuradas y la aplicación de un producto impermeabilizante. En los balcones se va proceder a la reparación de los elementos dañados y en algunos casos se va a impermeabilizar y sustituir el pavimento cerámico. En los aleros, se va a proceder a la reparación de los elementos dañados y realizar un tratamiento impermeable. Se realizará la sustitución de las carpinterías de prácticamente la totalidad del edificio, por una de mayores prestaciones.

La duración de las obras se ha estimado en nueve meses. Teniendo en cuenta el tiempo necesario para los procedimientos de licitación la obra podría comenzar en el último cuatrimestre de 2016.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 130.000 |
| 2017 ……………….. | 1.718.480 |

# TXOSTENA/MEMORIA

## 08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA
## DEPARTAMENTO 08: POLÍTICA SOCIAL
## 21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana
## Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social

### ERAIKINAK. INBERTSIO PROIEKTUAK: OBRA LIZENTZIAK ETA OBRA ZUZENDARITZAK

2016. urtean, hainbat proiektutako obrak hasteko asmoa du Gizarte Politikako Departamentuak. Proiektu horien iraupenak 2017. urtearen parte bat hartuko du.

Horietako bakoitzean, kontuan hartu behar da dagokion udal lizentzia; baita ere, obra zuzendaritzako ordainsariak, eta segurtasun eta osasun koordinaziokoak. Azkeneko horiek ordaintzeari dagokionez, obra gauzatzen den erritmoaren arabera ordainduko dira.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 75.000 |
| 2017 ……………….. | 175.000 |

### EDIFICIOS. PROYECTOS DE INVERSIÓN: LICENCIAS Y DIRECCIONES DE OBRA

En el año 2016, el Departamento de Política Social tiene previsto el inicio de las obras de varios proyectos cuya duración abarcará parte del año 2017.

En cada uno de ellos ha de tenerse en cuenta la correspondiente licencia municipal así como los honorarios de la dirección de obra y coordinación de seguridad y salud. Estos últimos se abonarán en función del ritmo de la ejecución de la obra.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 75.000 |
| 2017 ……………….. | 175.000 |

# TXOSTENA/MEMORIA

## 08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA
## DEPARTAMENTO 08: POLÍTICA SOCIAL
## 21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana
## Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social

### BEREHALAKO HARRERAKO ZENTROAK EGOKITZEA

Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuak egindako plangintzaren barruan, 2016ko lehen seihilekoan aurreikusita dago ikuskapenak egitea gizarte bazterketaren arriskuan dauden pertsonei arreta emateko zentroetan eta indarkeria matxistaren biktima diren pertsonei arreta emateko zentroetan.

Aurreikusita dagoenez, ikuskapen horien ondorioz, obrak egin beharko dira Departamentuari atxikitako zentroetan, arautegira egokitu daitezen.

Esku-hartzeak 2016ko azken lauhilekoan hasi eta 2017ko bigarren hiruhilekoan amaituko direla jotzen da.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 50.000 |
| 2017 ……………….. | 50.000 |

### ADECUACIÓN CENTROS DE ACOGIDA INMEDIATA

Dentro de la planificación del Servicio de Inspección, Inversiones e Iniciativa Social, durante el primer semestre de 2016 está prevista la realización de inspecciones en los centros de atención a las personas en riesgo de exclusión social y en los centros de atención a personas víctimas de violencia machista.

Se prevé que, como resultado de esas inspecciones, sea necesario realizar obras en los centros adscritos al departamento para su adecuación a la normativa existente.

Se estima que las intervenciones se iniciarán en el último cuatrimestre de 2016 y finalicen en el segundo trimestre de 2017.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

| | |
|---|---|
| 2016 ……………….. | 50.000 |
| 2017 ……………….. | 50.000 |

# TXOSTENA/MEMORIA

**08 DEPARTAMENTUA: GIZARTE POLITIKA**
**DEPARTAMENTO 08: POLÍTICA SOCIAL**
**21 Programa: Inbertsioen eta gizarte lankidetzaren plana**
**Programa 21: Plan de inversiones y cooperación social**

## EGOGAIN: INSTALAZIO ELEKTRIKOA ALDATZEA

2013. urtean, behe-tentsioko instalazio elektrikoaren berrikuspen bat egin zen Egogain zentro gerontologikoan, eta agerian jarri zuen akats larri ugari daudela.

Horregatik, 2015. urtean, proiektu bat enkargatu da behe-tentsioko instalazio elektrikoak legeztatzeko eta gauzatzeko. Aurreikusita dagoenez, urrian aurkeztuko da.

Behin betiko proiektuaren esperoan, obrek bederatzi hilabete iraungo dutela jotzen da. Kontuan hartuta zer denbora behar den obrak lizitatzeko prozeduretarako, 2016ko laugarren lauhilekoan has litezke.

AURREKONTUKO ZENBATEKOAK

2016 ……………….. 100.000
2017 ……………….. 489.270

## EGOGAIN: CAMBIO DEL CUADRO ELÉCTRICO

En el año 2013, se realizó una revisión de la instalación eléctrica de baja tensión en el centro gerontológico Egogain que puso en evidencia la existencia de numerosos defectos graves.

Por ello en el año 2015 se ha encargado el proyecto de legalización y ejecución de las instalaciones eléctricas de baja tensión, cuya entrega está prevista para el mes de octubre.

A la espera del proyecto definitivo, se estima que las obras tendrán una duración de nueve meses. Teniendo en cuenta el tiempo necesario para los procedimientos de licitación la obra podría comenzar en el último cuatrimestre de 2016.

DOTACIÓN PRESUPUESTARIA

2016 ……………….. 100.000
2017 ……………….. 489.270